

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

133 ikastetxetako Haur Hezkuntzako 10.200 ikasle parte hartzen ari dira ikasturte honetan fruta kontsumitzeko eskola-kanpainan

Nafarroako Gobernuak sustatutako ekimen hau gaur aurkeztu da Irurtzungo ikastetxe publikoan

Jueves, 26 de noviembre de 2015

133 ikastetxetako Haur Hezkuntzako 10.200 haurrek jaten dute fruta egunotan beren ikastetxean, Nafarroako Gobernuak elikagai horien kontsumoa sustatzeko egindako eskola-kanpainaren barnean, eta Europar Batasunak kofinantzatutakoa. Ekimen hori gaur goizean aurkeztu da Irurtzungo "Atakondoa" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan; 3 eta 6 urte arteko ikasleak daude bertan.



Irurtzungo Atakondoa ikastetxeko haurrek, fruta jaten.

"Fruta eskolan" programa azaroaren 16an hasi zen eta abenduaren 18an amaituko da. Lau aste hauetan, haur bakoitzari hamaika fruta banatuko zaizkio, sagarrak, udareak, bananak, laranja eta mandarinak nahastuta. Lehen hiru asteetan, astean hiru ale banatuko dira, eta bi errazio azken astean. Errazio bakoitzak 150 gramo pisatzen du. Guztira, 20.000 kilo banatuko dira.

Ekimen honen helburua, halaber, ikasleak landa eta nekazaritzako mundua ezagutzen eta apreziatzen hastea da, produktu fresko nahiz tokikoak kontsumitzen has daitezen. 50.000 euroko aurrekontua du, eta kopuru horretatik, % 25 Nafarroako Gobernuak finantzatzen du, Osasun eta Landa Garapeneko departamentuen bidez. Gainerako % 75 EBak jartzen du.



Ezkerretik eskuinera: Insausti eta Larríu, Caixa Bank-ekoak, eta Gil zuzendari nagusia, haurrekin.

Aldi berean, Caixa Fundazioak eta AN Fundazio Kooperatiba Taldeak

ekimen bat garatzen ari dira fruta eta barazkien kontsumoa etxeetara zabaltzeko, haurrei etxera eramateko elikagai gehiago banatuz: fruta eta brokolia. Kasu honetan ere, barazki hori etxean prestatzeko errezeta erraz bat sartzen da.

Aurkezpen-ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Gilek; Nafarroako Caixa Bankeko Oscar Insausti eta José Luis Larrío zuzendaritzako kideek; AN Fundazioa Taldeko zuzendari Maite Muruzabalek eta ikastetxeko zuzendari Silvia Sanchezek.

Fruta eta barazkia kontsumitzearen onurak

Programa honen helburua ikasleen artean fruta eta barazkien kontsumo-maila hobetzea da, eta haurtzarotik kontsumo osasungarriko ezagutzak eta ohiturak eskaintzea; horrek guztiak obesitateari eta hari lotutako gaitzei aurre egiten laguntzen du. Alde horretatik, aipatu beharra dago ikerketa askok fruta eta barazkien nutrizio-onurak frogatu dituztela, eta dietan frutak eta barazkiak sartu behar direla, haurren dietetan bereziki.

Ebidentzia argiena da elikagai horien kontsumoak obesitateari aurre egiten diola. Azken datuen arabera, 15 urtetik beherako Nafarroako biztanlerian % 71k pisu egokia duela ikusi da, % 20k gehiegizko pisua, % 8k obesitatea eta % 1ak argaltasuna. Gainera, fruta eta barazkiak jateak gaitz infekziosoei aurre egiteko ahalmena areagotzen du. Oro har, pertsona bakoitzak egunean 5 fruta eta barazki-errazio kontsumitzeko gomendatzen da, aldaketa txiki batzuk eginez fruta eta barazkien arabera.